

GUREN BAI – OSTALARITZA

Guren Bai-Merkataritza hitzarmenaren baitan kokatu behar dugu Ostalaritzari lotutako atal espezifikoak. 2007ko uztailan egin genuen hitzarmenaren aurkezpen publikoa, eta hiru urterako proiektua jarri genuen martxan.

Proiektuaren helburu nagusia Elgoibarko ostalaritzan euskararen erabilera sustatzea zen. Eta, horretarako, hizkuntzari lotutako bi atal jorratu genituen, batez ere: euskararen erabilera eta ezagutza. Bi planotan jardun genuen lanean: barrura begira, ostalaritzako langileekin; eta kanpora begira, bezeroei zuzendutako ekimenekin.

Elgoibarren, guztira, ostalaritzari lotutako 56 negozio zeuden garai hartan (2007an), eta hauetatik 42 ostalarik sinatu zuten hitzarmena.

Euskararen erabilera indartzeko helburuarekin, honako zerbitzu hauek eskaini ditu proiektuak:

- **Hizkuntza-zerbitzuak:**
 - Hizkuntza aholkularitza
 - Itzulpenak
 - Zuzenketak
 - Testu-ereduak
 - Baliabide informatikoak

- **Prestakuntza:**
 - Euskara ikastaro espezifikoak
 - Tertulia programa

- **Diru-laguntzak:**
 - Euskara ikasteko beka-sistema
 - Errotulua euskaratzeko
 - Kudeaketarako aplikazio informatikoa euskaraz jartzeko

- **Materialak doan:**
 - Kartel mutuak
 - Faktura liburuxkak
 - Euskarriak
 - Errotulu estandarrak

Hiru urtez lanean jardun ondoren, 2010eko uztailean eman genion amaiera Gurean Bai-Ostalaritzari, proiektua mantentzeko aurrekonturik ez zegoelako.